

# NOLA KUDEATU ETXEKO ZABORRA KORONABIRUSAREN EPIDEMIAN ZE HAR

Hona hemen jarraitu beharrekoak zure etxean koarentenan dagoen edo koronabirusarekin positibo eman duen inor bizi bada:



Pazienteak eta haren zaindariak erabili eta botatako edozein material ("zabor" deitzen dugun hura) **LEHEN POLTSA BATEAN** sartu behar da, ETA ERABAT ITXI, haren logelaren beraren barruan, beste gela batzuk ez kutsatzeko.

Zaindaria erabilitako eta bota beharreko materiala **BIGARREN POLTSA BATEAN** sartu behar da, eta lehen poltsa (1 poltsa) ere haren barruan sartu beharko da. Hau da, eskularruak, maskarak eta babesteko beste edozein gauza. Bigarren poltsa hori ere ERABAT ITXI beharko da logelaren beraren barruan, bestea bezala.



Bigarren poltsa errefusaren (gainerakoaren) frakziorako ohiko poltsan sartu behar da, hau da birziklatzen ez diren hondakinatarako erabiltzen den horretan. Hirugarren poltsa hori ere **ERABAT ITXI** beharko da, eta **ERREFUSA** edukiontzian bota, berdean.



Ziurtatu zorrotz-zorrotz betetzen duzula prozesua, mesedez, garrantzitsua baita denon onurako. Zalantzaren bat baduzu, jar zaitez harremanetan mankomunitatearekin 948 63 52 54.

Garbigunea itxita dago eta tamaina handikoak eta arropa biltzeko zerbitzua bertan behera utziko da alarma-egoera amaitu arte. Ez atera, mesedez, mota horretako hondakinak edukiontzietara, ezta arropa erabilia ere.

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzin auzo konpostguneak ere momentuz itxi egin dira, baina beraien ordezkari edukiontzia marroiak jarri dira materia organikoa bereiz bildu ahal izateko. Hau poltsa itxi baten barrenean bota beharko da.

Halaber, hondakinak inoiz baino gehiago gaika bereizten jarrai dezazula eskatzen dizugu, gainerako frakziorako (errefusa) edukiontzietan pila ez daitezen.

GOGORATU PAPERAK,  , ONTZIAK  , BEIRA   
y MATERIA ORGANIKOA   BIRZIKLATZEN JARRAITU BEHAR DUZULA.

**BAT EGINDA GELDIARAZIKO DUGU BIRUS HAU**